

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIDE-SEGURTASUN BATZORDEAREN OSOKO BILKURA

Josu Zubiaga Nieva

Segurtasuneko sailburuordea

Sonia Diaz de Corcuera

Trafikoko zuzendaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

2019KO KONPROMISOAK

- 2020 URTEAN HILDAKO BIKTIMEN KOPURUA %50 MURRIZTEKO **EUROPAKO KONPROMISOA** HARTZEA, 2010 URTEKO HILDAKOEN KOPURUA OINARRI HARTUTA. 2010EAN 67 HILDAKO; 2018AN, 42. 2030EAN LARRI ZAURITUTAKO PERTSONEN KOPURUA MURRIZTEKO **EUROPAKO KONPROMISOA**, 2020. URTEKO KOPURUA OINARRI HARTUTA.
- BIDE-SEGURTASUNAREN ARLOKO **KONTZIENTZIAZIO PROGRAMAK** SUSTATZEA, KOLEKTIBO AHULENAK BABESTEKO. MOTOR-GIDARIAK, OINEZKOAK ETA TXIRRINDULARIAK.
- BIDE NAGUSIETAKO ETA BIGARREN MAILAKO ERREPIDEETAKO **ZIRKULAZIOAREN INFORMAZIOA ETA KUDEAKETA HOBETZEA**, ERREPIDEEN TITULARRAK DIREN ERAKUNDEEKIN KOORDINATU ETA INFORMATZEKO SISTEMA BERRIAK ERABILITA.
- TOKIKO ERAKUNDEEKIN LANKIDETZAN, **HIRI-INGURUNEETAN MUGIKORTASUN SEGURUA ETA IRAUNKORRA SUSTATZEA.**

2019KO KONPROMISOAK

- BIDEKO ERABILTZAILEEI ZUZENDUTAKO **TEKNOLOGIA BERRIAK** AZTERTZEA, BIDE-SEGURTASUNA ZEIN MUGIKORTASUN IRAUNKORRA BERMATZEKO. EUSKADIKO TRAFIKOAREN KUDEAKETA AURRERATUA.
- JOKABIDE EZEGOKIAK ZUZENTZEA, ETA HORRETARAKO, **BIDE-SEGURTASUNA ETA KONTZIENTZIAZIOA SUSTATUKO DITUZTEN PROZEDURAK** APLIKATZEA, ETA BEHARREZKOA DENEAN NEURRI KOERTZITIBOAK ERE BAI.
- BIDE-HEZIKETA HEZIKETA-PLANEN BARRUAN TXERTATZEA, **ISTRIPUAK PREBENITZEKO TRESNA GISA.**

2019KO EKINTZA-PLANA

- **Trafikoaren zaintza eta kontrol kanpainak.** Aurten 44 kanpaina egingo dira, tartean motozikleten abiadura kontrolatzeko berariazko 5 kanpaina. **Ertzaintzak egiten ditu, Udaltzaingoekin lankidetzan.** (Abiadura, alkohola, drogak, dispositibo mugikorrak, eskola-garraioa, aseguruia, IAT, etab.)
- **Erregistroa.** Sailburuaren Agindua, **Trafiko-Istripuen Biktimen Euskal Erregistroa** abian jartzekoa. 2019ko balantzea tresna berri horrek ematen dituen datuekin egingo da.
- **Hitzarmenak foru aldundiekin eta autobideekin.** Bide-segurtasunaren arloko ekintzak koordinatzeko eta datuak elkartrukatzeko.
- **Lankidetzaren udalekin:** Trafikoari, motordun ibilgailuen zirkulazioari eta bide-segurtasunari buruzko araudia betetzen den zaintzeko eta hura interpretatzeko. Hala eskatzen duten udalen zehatzeko eskumenen ardura hartuko da, eta hitzarmen-proiektuak landuko dira.

2019KO EKINTZA-PLANA

- **Udalerri txikietarako bide-segurtasuneko planak.** Udalerri txiki eta oso txikietarako hiru bide-segurtasuneko plan egitea sustatuko da. 2018an Urretxun, Kanpezun eta Ibarrangelun. 2019an Bakion, Elciegon eta Zaldibian.
- **Ezagutza.** Kolektibo ahulenen istripu-tasari buruzko ezagutza hobetzen laguntzen duten ekintzak jarriko dira martxan. Jardunaldi Profesionalak, azterketak eta azterlanak unibertsitate, kluster, erakunde eta abarrekin...
- **Tailerrak.** Eskola Agenda 21eko “Mugikortasun Segurua eta Iraunkorra” ardatzean parte hartzen duten zentroetako irakasle, familia eta koordinatzaileentzat.

2019KO EKINTZA-PLANA

- **Sentsibilizazioa.** Trafiko-istripuen prebentzioaren arloan lan egingo da unibertsitatetik kanpoko hezkuntza sistemako ikasleekin. Programak: GERTA DAKIZUKE/TE PUEDE PASAR, NORABIDE ALDAKETA/CAMBIO DE SENTIDO Antzerki Forumeko programa.
- **Don't be Dummy!** Ikastetxeetarako sentsibilizazio-programa. 2017/2018 ikasturtean eta 2018/2019 ikasturteko lehen hiruhilekoan 40 saio. Zuk ez duzu ordezkorik lehiaketa. 16 eta 20 urte bitarteko gazteei zuzenduta. 2019an zehar 20.000 ikasleren langa gaindituko da.
- **Prestakuntza tokiko administrazioei.** Tokiko administrazioetako mugikortasunarekin lotutako teknikarientzako ikastaroak: haurrak eta gazteak, aisialdia, kultura, kirola, drogamenpekotasunen prebentzioa, etab.

2019KO EKINTZA-PLANA

- **Mintegiak:** Bide-hezkuntzako programak garatzen dituzten ertzain eta udaltzaingoentzat.
- **Kolektibo ahulenak: Adinekoak.** Istripuak prebenitzeari eta jokabide seguruak sustatzeari buruzko sentsibilizazio-programak adineko pertsonekin, Pausoz-pauso seguru/Seguridad paso a paso programaren bidez.
- **Kolektibo ahulenak: Motor-gidariak.** Kolektiboa jokabide arduratsuen gainean sentsibilizatzeko kanpaina berezia. “Ikuspegi partekatua” strategiaren lanketa. Ekintzak: prestakuntza, kolektiboaren istripu-tasaren azterketa egiteko sentsibilizazioa material eta monografikoen bitartez.

2019KO EKINTZA-PLANA

- **Komunikazioa.** Euskadiko bide sareko trafikoari buruzko informazioa hobetzea, herritarrei berehala eta modu zuzen eta eraginkorrean hel dakien, ondokoen bidez: webgunea, 011 telefonoa, sare sozialak eta mezu aldagarriko panelak.
- **Publizitatea:** Euskarri desberdinetako publizitate kanpainak diseinatzea, arrisku faktoreei buruzkoak eta mugikortasun seguruaren eta iraunkorraren aldekoak... Jokabide arduratsuak lantzea, kontzientziaztea eta prebenitzea. Batera gertatzen diren faktoreak.
- **Bide-segurtasuna eta trafikoaren kudeaketa** Garraio Sistema Adimendunak garatzea, Euskadiko Trafikoaren Kudeaketa hobetzeko. Teknologia berriak ezartzea trafikoaren egoera, trafikoaren fluxuak, monitorizazioa, bisualizazioa eta kudeaketari begira. Erabakiak hartzeko gaitasuna hobetu.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO BIDE-SEGURTASUN BATZORDEAREN OSOKO BILKURA

Josu Zubizarreta

Segurtasuneko sailburuordea

Enrique Diaz de Corcuera

Trafikoko zuzendaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

SEGURTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD